

Ordizian, 2015eko abenduaren 17a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
-----------------------------	---------------

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



## BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

### AZTERTUTAKO GAIAK

#### EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. -2015eko urrian 8ko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.
- 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- Ordiziako E.H-Bilduk aurkeztutako proposamena Talidomidako afektatuei buruzkoa.
- 4.- Kontuhartzaileak aurkeztutako ingeren berri ematea.
- 5.- Kreditu aldaketa.
- 6.- Alkatetzaren dekretuen bidez onartutako kreditu gehigarrien expedienteen berri ematea.

#### GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

#### ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:05 etan

AMAIERA: 20,10etan



### 1. -2015eko urrian 8ko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.

#### Proposamena

2015eko urrian 8ko udalbatzarrak egindako bilkuraren zirriborroa onartzea.

Mahai gainean geratu da.



### 2.- Alkatetzako dekretuen berri ematea.

Jakinaren gainean.



### 3.- Ordiziako E.H-Bilduk aurkeztutako proposamena Talidomidako afektatuei buruzkoa.

Talidomida 1954ko martxoan patentatu zen Espainian lehen aldiz. Albo ondorioz gabeko lasaigarri miragarri bat zen, eta, gainera, haurdunei goragaiea eta gorakoa arintzen zien. Urte horietan zehar, beso edota hanketan malformazio larriak zituztela jaio ziren haur ugari, baita beso eta hankarik gabe ere, eta, 1961eko azaroan, Widukin Lenz alemaniar doktoreak eta Claus Knapp espainiar doktoreak talidomidaren eta malformazioen arteko lotura deskubritu zuten. 1961eko azarotik 1962ko maiatzera bitarte, mundu guztian kendu zen... Espainian izan ezik. Zer ondorio zituen jakinik ere, saldu egiten zen, 1975 arte behinik behin, Alemaniako Grunenthal enpresak negozioa egin zuelarik Espainian.

Baina Talidomidaren hondamendiak balio izan zuen sendagaiak, elikagaiak, edariak eta gizakiak kontsumitzen dituen gaiak kontrolatzeko legedia aldatzeko. Beraz, esan dezakegu talidomidari esker gizakiok lasai egon gaitezkeela ahoan sartzen dugunarekin, medikamentuekin batez ere, nahiz eta apenas eman zaien eskerrik haren biktimei.

AVITE izan da, biktimei arreta bermatu duen elkarte. Beraien hitzetan, 11 urtez borrokatu dira talidomidaren Europako biktimeak parekatzeko, eta bide luze honetan errege dekretu bat (1006/2010) besterik ez dute lortu Espainian, zeinak 24 biktime bakarrik aitortzen dituen, eta, testuak berak dioen bezala, "laguntza solidarioa" ematen du. Horrez gain, Talidomida 1851/2009 errege dekretuan sartzea lortu dute; horren arabera, 56 urterekin erretiroa hartzeko aukera izango dute %45eko ezintasuna edo handiagoa dutenek. Baina, paradoxikoki, ez dago erakunde ofizial eta doakorik aitortzen duenik nor den talidomidak eragindakoa; ondorioz, talidomidaren biktimeak ezin dira errege dekretu horretan babestu, aitorpen "ofizialik" ez dagoelako.

Era berean, Grunenthal laborategiari salaketa jarri zioten, eta lehen auzialditan irabazi egin zuten epaiketa. Madrilgo Probintzia Auzitegiak, ordea, preskribatu egin zuen, eta gaur egun Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain daude. Elkartekoek saltzen dute, ez dutela izan inoren laguntzarik prozesu hau burutzerako orduan, ez enpresa pribatuen ez publikoen diru laguntzarik; eta bazkideen hileroko kuoten bidez ordaindu dituzte baliabide eta zerbitzu ezberdinak.

Gaur egun, Euskal Herrian 228 kasu identifikatuta daude.

Espainiko kasua Europako beste herrialde batzuekin aideratzen badugu, ordea, biktima guztiek ondorengo jaso dute: Kalte-ordaina.

Bizi guztirako pentsioa, bizitza duina eta autonomia bermatzeko. Unitate mediko espezializatuak. Unitate psikologiko espezializatuak. Sendagaiak, protesiak eta besteiaiko protesiak, doan.

Datu hauek agerian uzten dute Espainian bizirik dirauten talidomidaren biktimak, gehienbat, familiaren eta gizarte zerbitzua ematen duten elkarteen laguntzaz, baina inolako errokonozimendu, arreta eta estaldura publikoa bermatua izan gabe.

## ESKAERA

1.- Ordiziako Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabateko babesaren erakustea talidomidaren biktimei, eta bereziki AVITE elkarteari, etenik gabeko borroka nekaziazatik, sendagai honek dituen biktimen alde.

2.- Ordiziako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Alemaniako Grunenthal farmazia enpresari idatzi (Espainiako Grunenthal enpresako zuzendari nagusia. Zamenhof doktoarearen kalea, 36. 28027, Madil) eta eskatzea besterik gabe kalte-ordaina eman diezaiela Espainiako kaltetuei.

3.- Ordiziako Udalbatzaren Osoko Bilkurak kaltetuek izan lezaketen kalte-ordaina gorabehera, jaio aurretik farmazia enpresa horrek gorputzean eragin zizkien kalteengatik, udal honek idatzi eta eskatzea Espainiako Gobernuari gizarte neurri moduan gobernuak berak (dagokion erakundearen bidez) esan dezala Espainian zein izan daitekeen talidomidak kaltetua eta zein ez, eta eman diezazkiela bizi guztirako pentsioak, munduko gainontzeko herrialdeetako kaltetuek jasotzen ari diren bezala.

4.- Ordiziako Udalbatzaren Osoko Bilkurak mozio honi dagokionez adostutako akta bidaltzea AVITE elkarteari (Comadrona Carmita kalea, 1-2 H 30820 Alcantarilla, Murcia) eta Espainian kokatutako Grunenthal laborategiari, multinazional gisa, bai eta Espainiako Gobernuari.

Ordizian, 2015eko azaroaren 13an



## Eztabaida

### Alkatea

Alde egingo dugu.

### Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia-Orain 1, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0



### 4.- Kontuhartzaileak aurkeztutako ingeren berri ematea.

#### Eguren

Galdetu du zer den Mallutzeko pabelloiaren alokairua.

#### Alkatea

Jaietako karrozat etabar gordetzeko pabilioi bat da. Egun gauzak berkokatu ditugu eta pabelloia utzi.

#### Maiza

Zer partidatik ordaindu da?

#### Alkatea

Seguraski kreditu aldaketa bat egingo genuen urriko plenoan.

.....

#### Maiza

Ana Irastorzaren kontratazioari buruz. Zer kontzeptutan hartu da?



## Alkatea

Kazetaria da. Enpresa batu du komunikazio arlokoa. Tokiko Gobernu Batzarrean aipatu genuen kontratu txiki bat egin zitzaiola, komunikazio zerbitzua emateko.



### 5.- 2015eko Aurrekontuan kreditu aldaketak onartzea.

Aurrekontuko partiden kreditu aldaketen behar guztiak aztertu eta gero, horietako gehienak Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren likidazioaren diru-sarrera handiagoak erabilita bideratuko dira.

Gainerako aldaketak ia osorik dagozkio Oiangu baserriaren Birgaitze partidei. Partidetako kredituak gastuaren errealitateari egokitzen zaizkio, gastuaren izaeraren arabera, eta soilik 6.700 euro gehiago behar dira.

Kreditu erabilgarria duten inbertsioetarako beste partida batzuen finantzaketa nahikoa dago.

### AKORDIO PROPOSAMENA

Kreditu transferentzien 11 zenbakidun espedientea onartzea, 59.650,00 eurokoa, jarraian zehaztutakoaren arabera.

#### 2015 URTEA KREDITUEN TRANSFERENTZIAK

##### KREDITUEN HANDITZEA

623.02.171.20	Oiangu jatetxerako instalazioak	26.545,00
623.04.171.20	Oiangu jatetxerako tresneria	30.105,00
622.01.933.00	Dorreako lokalaren bergaitzea	3.000,00
		<b>59.650,00</b>

##### KREDITUEN GUTXITZEA

601.02.153.40	Obra txikiak	700,00
623.04.153.40	Obren brigadarako tresneria	9.000,00
622.01.171.20	Oiangu jatetxearen bergaitzea	21.900,00
623.01.171.20	Oiangu jatetxerako makineria	6.300,00
625.01.171.20	Oiangu jatetxerako altzariak	10.250,00
625.99.171.20	Oiangu jatetxerako tresneria	11.500,00
		<b>59.650,00</b>

Ordizia, 2015eko abenduaren 3a



## Eztabaida

### Kontuhartzailea

Aukeztu du. Behar gehienak dekretu bitartez zuzendu ziren. Udalbatzarraren eskuderatza dira partida batzuk,. Oiangu, Dorreako lokalaren bergaitzea, Majori Kiroldegira S.L.ra transferentzia.

### Emendakina

1.- Akordio proiektua aldatu, finantziazioan 623.04.153.40 partidan 9000€ erabili ordeztuz, 623.02.153.40 partidako 9000€ erabiltzeko.

2.- Aurreko akordio proiektuari ondoko aldaketak eranstea

#### KREDITUEN HANDITZEA

623.04.151.00	Laser bat	1.875,00
623.01.151.40	Makina birrintzailea	774,40
623.04.163.00	Gatzarako 10 edukiontzi txikiak/haize-makina	1.749,00
623.04.171.10	Lorzaintzarako tresneria	5.335,28
		13.685,54

#### KREDITUEN GUTXITZEA

623.04.153.40	Obretako tresneria	5.000,00
623.02.171.10	Parke eta Lorzaintzarako tresneria	8.685,54
		13.685,54

### Emendakina

#### Bozketa

Aldekoak:12 (EAJ/PNV5,Ordiziako EH-Bildu5,Ordizia-Orain 1, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0

### Aldaketa proposamena

#### Bozketa

Aldekoak:12 (EAJ/PNV5,Ordiziako EH-Bildu5,Ordizia-Orain 1, Socialistas Vascos–Euskal Sozialistak 1)

Abstentzioak: 0

Aurkakoak: 0



Beraz, honela jasota geratu da

KREDITUEN TRANSFERENTZIAK

KREDITUEN HANDITZEA

623.02.171.20	Oiangu jatetxerako instalazioak	26.545,00
623.04.171.20	Oiangu jatetxerako tresneria	30.105,00
622.01.933.00	Dorreako lokalaren bergaitzea	3.000,00
623.04.151.00	Laser bat	1.875,00
623.01.151.40	Makina birrintzailea	774,40
623.04.163.00	Gatzarako 10 edukiontzi txikiak/haize-makina	1.749,00
623.04.171.10	Lorezaintzarako tresneria	5.335,28
		<b>73.335,54</b>

KREDITUEN GUTXITZEA

601.02.153.40	Obra txikiak	700,00
623.04.153.40	Obren brigadarako tresneria	9.000,00
622.01.171.20	Oiangu jatetxearen bergaitzea	21.900,00
623.01.171.20	Oiangu jatetxerako makineria	6.300,00
625.01.171.20	Oiangu jatetxerako altzariak	10.250,00
625.99.171.20	Oiangu jatetxerako tresneria	11.500,00
623.04.153.40	Obretako tresneria	5.000,00
623.02.171.10	Parke eta Lorezaintzarako tresneria	8.685,54
		<b>73.335,54</b>



6.- Alkatetzaren dekretuen bidez onartutako kreditu gehigarrien expedienteen berri ematea.

Dekretuak.	Zenbatekoa	Gaia
945	91.724,92	Sasieta Mankomunitateari ekarpena
1108	9.100,00	Turismo Bulegoaren kudeaketa kontratua
	91.780,18	Zenbait programa





## Alkatea

Bi dekretu daude.

Jakinaren gainean.



## 7.- Galde-erreguak

### Eguren

Udal antolamentu proposamena eskatu nahi dugu berriro. Badirudi sekretua dela.

Batzordeei buruz, aurkeztu genuen proposamen bat eta zehatzago bat egingo dugu, besteak beste. Batzordeak ahalduntzeko. Zertan daude Batzordeak?

### Alkatea

Batzordeak eta Delegazioak (Kultura, Ongizate) deitzen ari gara. Kirola ere. Martxan jarriko ditugu guztiak.

### Eguren

Trafiko aldaketak. Erabakirik hartu da?

### Alkatea

Eskatu dira aurrekontuak margoketarako. Aurrikuspen batzuk daude, norabide aldaketei buruz, baina mahai teknikoak ez ditu garatu.

### Eguren

Guk trafiko alkaketak erabaki aurretik batzordetan joratu genuen gaia. Zuek ere?

### Alkatea

Proposamen teknikoa izan ostean.

### Eguren

Zergatik ireki da Euskal Herria kalea? (trafiko aldaketa).



### Alkatea

Merkatarien eskaera da. Duela urte t' erdi egin zuten proposamena.

### Ezenarro

Merkatariak entzun behar ditugu, baina beste elkarte eta herritarrak eduki behar ditugu kontuan, beste prozesu batzuekin egiten ari den bezala.

### Maiza

Lokalen berrantolaketa bazterrean utzi duzue. Kultura mailan aspalditik zetozen zenbati erabaki geldirik dago. Herri Antzokiaren berritzea pendiente dago.

Proiektu parte hartzaile bat egin zen eta txosten bat osatu. Zenbait interbentzio egin dira eraikinean kultur ekintzen nondik norakoak jorratzen hasi ginen. Kezkatzen nau kulturaren garrantziaz jabetzen den gobernu taldeak. Gai honi heldu behar zaio, aintzat hartuz kultur taldeen eskaerak.

### Alkatea

Martxan jarri dugu Aholku Batzordea. Talde gehienekin bildu gara eta gure prestutasuna adierazi aurrera egiteko.

### Ezenarro

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua lehen bait lehen jarri beharko litzateke martxan.

Eskatzen dugu lehen zirriborria urtea amaitu aurretik izatea, denborarekin landu ahal izateko.

### Alkatea

Zirriborria izan bezain pronto igorriko dizuegu. Zuek ere ez zenuten banatzen gobernu taldeak ondo jorratu arte.

### Intsausti

Aurrekontuen zirriborria izango dugu urtarrila haserako?

### Alkatea

Baietz erantzun dio.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

